



2000KO UZTAILAREN 18KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako uztailaren hemezortzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Julio Ibañez Urteaga eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2000ko ekainaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Estensoro zinegotzia bertaratzen da.

III.- ISURKETA KANONAREN LIKIDAZIOAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA.-

"Confederación Hidrográfica del Norte"-ko Presidenteak 1999 urteari dagokion isurketa kanonaren likidazioa bidali du Udal honetara.

Aurreko urteetako likidazioekin gertatu bezala, Udal honek 1995 urtez geroztik, Azpiegituren Finantzaketa Kanona Gipuzkoako Ur Kontsortzioari ordaintzen diola eta, eta horrekin isurketa kanona ordaindu beharrik ez duela ulertzen duelako, likidazio honen aurkako birjarpeneko errekurtsioa aurkeztua izan da Alkatetzako ebazpen bidez.

Hau honela Udal Osoko Bilkurari honen berri ematen zaio honek alkatetzako erabakia berretsi dezan.

Honen aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko boituarekin, 1999 urteari dagokion isurketa kanonaren likidazioaren aurka birjarpeneko errekurtsioa aurkeztean berretsi egiten da.

...///...

...///...

IV.- 5 HIRIGINTZ AREAKO 6 SISTEMA OROKORREKO ESPALIOA EGITEKO HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2 Sektorean egin diren obren ondorioz eraikitako espaloari jarraipena emate asmoz, 5 Hirigintz Areako 6 Sistema Orokorrean, Hirigoien Kalean, Untzindegi baserriko lurretatik Torrecil etxeraino espaloia egitearen helburuarekin, hirigintz hitzarmena izenpetu nahi da espaloi honek hartuko dituen lurren jabeekin.

Hirigintz hitzarmen honetan arautuko denez, Jose Angel Garmendia Aldanondo J., Maria Begoña Begiristain Auzmendi A. eta Fernando Aguado Ayerdi J. eta bere emaztea Isabel Telleria Gurrutxaga A.k espaloi hau egiteko behar adinako lurren zesia egingo dute.

Lazkaoko Udalak, gune horren hirigintz garapenerako aurkezten diren planeamendu eta kudeaketa dokumentuetan, Jose Angel Garmendia Aldanondo J. eta Maria Begoña Begiristain Auzmendi A.ri beraienak bezala eta aprobetxamendurekin aitortuko dizkie orain zeditzen dituzten lur azalerak.

Fernando Aguado Ayerdi J. eta bere emaztea Isabel Telleria Gurrutxaga A.ri dagokionean, zeditzen duten azalera eta beraien esku gelditzen den gainontzeko lurraren hirigintz eskubideak, bere garaian Hirigoien Kaleko 1ean dagoen eraikina eraikitzearekin kontsumitutako aprobetxamenduak kendu eta gero zehaztuko dira.

Aguado-Telleria J./A.k eta Begiristain A.k zeditutako azaleretan eraikiko den espaloi zatia Udalak burutu eta bere gain joango da.

Jose Angel Garmendia Aldanondo J.ren gain joango dira zeditzen duen azalera egingo den espaloi zatiaren gastuak.

5 Hirigintz Arearen garapena gertatzen denean Lazkaoko Udalak eraikuntza eskubideak dituztenei urbanizazio gastu hauetarako aurreratutako diru hau kobratuko die.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Hirigintz hitzarmen hau onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea hirigintz hitzarmen hau izenpetu dezan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

